

2007ko martxoaren 20ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

1. - 2.007KO URTARRILAK 30EKO ETA OTSAILAK 20EKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
2. - ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
3. - LARDI AUZOKO HITZARMENEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA..
4. - LARDI AUZOKO PLAN BEREZIA GAUZATZEKO ERABAKIA .
5. - 1.8 UNITATEKO DESJABETZAPEN PROZEDURAREN BARNEAN ERASANDAKO ESKUBIDE ETA ONDASUNEN ERLAZIOAREN HASERAKO ONARPENA.
6. - ALKATEARI ESKRITURAK UDALAREN IZENEAN SINATZEKO AHALMENA EMATEKO AKORDIOA.
7. - TOLOSALDEKO HONDAKIN UREN ARAZTEGIA ADUNAN KOKATZEKO ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
8. - ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
9. - ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA
10. - ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
11. - GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2007ko martxoaren 16.

ALKATEA

2.007KO MARTXOAK 20

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.
Patxi Ormaetxea Otegi.
Jabier Zabala Zabala.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Antton Artola Iburguren
Miren Aburuza Alkorta

IDAZKARIA:

Nerea Ubeda Etxarri.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko martxoaren hogeian,, hogeita bat orduak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.007KO URTARRILAREN 30EKO ETA OTSAILAK 20EKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2007ko urtarrilaren 30eko eta otsailaren 20eko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:

ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinarazten du:

1.- 2007ko otsailaren 5ean Herri eskolari otsailaren 16an frontoia erabiltzeko baimena ematen zaio (10/2007 Alkatetza Ebazpena).

2.- 10.088,54 eurotako 2006ko 4. hiruhilabeteko Ur hornidura zerbitzuagatikotasaren erroldaren onarpena (11/2007 Alkatetza Ebazpena).

3.- Martin Esnaola Agirrezabala jaunari Olazabal baserrian portxe bat egiteko baimena ematea onartzen da. (12/2007 Alkatetza Ebazpena).

4.- Asfaltados Naturales Canpezo-ri Oria Erdiko Interzeptore obrak egiteko Adunako Lursailen behin behineko okupazioa onartzen da (13/2007 Alkatetza Ebazpena).

5.- Jone Olasagasti Andereari Andretegi baserriko 2.solairuko etxebizitzarako habitabilitate baimena ematen zaio (14/2007 Alkatetza Ebazpena).

6.- Leandro Galatas Jaunari bere lursail batzuk segregatzeko baimena ematen zaio (15/2007).

7.- Aizpea Industriguneko furgonetak eta ibilgailuak kentzeko agindua (16/2007).

8.- Juan Goikoetxea Albisu Jaunari jarduera baimena ematen zaio (17/2007)

9.- Iale Caucho S.L.ri errekerimendua egiten zaio bere jarduera legeztan dagoen proiektua Udalean aurkeztuz. (18/2007).

10.- Arrue Manufacturas Infantiles-ek, Todo-Todo jantoki jarduera proiektuari egindako alegazioen erantzuna (19/2007).

11.- 64.534,59 eurotako 2007 urteari dagokion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen errolda onartzen da (20/2007)

12.- Arcelor enpresako teilatua konpontzeko baimena ematen da (21/2007)

13.- Jesus Mari Gorostidik Adunako Lardi proiektuaren aurka ezarritako auzian pertsonarazteko ebazpena (22/2007)

HIRUGARREN PUNTUA:

LARDI AUZOKO HITZARMENEN ONARPENA ETA ALKATEARI ESKRITURAK UDALAREN IZENEAN SINATZEKO AHALMENA EMATEKO AKORDIOA

Lardi Auzoko Zolaketa obrak gauzatzeko, Lardi Auzoko biztanleekin hainbat hitzarmen sinatzea aho batez onartzen da. Bestalde, Alkate Andereari Hitzarmen hauetatik inskribatu beharreko eskriturak udalaren izenean sinatzeko ahalmena ematea adosten da Udalbatza osatzen duten kide guztien onarpenarekin.

LAUGARREN PUNTUA:

LARDI AUZOKO PLAN BEREZIA GAUZATZEKO ERABAKIA.

Lardi Auzoko exekuzioa gauzatzeko dagokion Plan Berezia gauzatzea proposatzen da. Hala ere, Adunako Arau Ordezkatzaile berriak indarrean sartu arte eta Larditarrekin Hitzarmenak sinatu arte, gaia mahaiaren gainean uztea adosten du Udalbatzak, aho batez.

BOSTGARREN PUNTUA:

1.8 UNITATEKO DESJABETZAPEN PROZEDURAREN BARNEAN ERASANDAKO ESKUBIDE ETA ONDASUNEN ERLAZIOAREN HASERAKO ONARPENA.

Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 10. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Udalbatzak 2007ko urtarrilaren 16an egindako oso bilkuran erabaki zuen Adunako Hiri Antolaketako Arauak onartzea. Horietan, 1.8 HEA dago eta herri onuragarritasuna dakar inplizituki.

Hori horrela, ERABAKI DA:

Lehenik: Nahitaezko Desjabetze Legeak 17. artikuluan ezarritakori jarraituz eta lege horren garapenerako Erregelamenduak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, erabaki da desjabetzeko legezko izapideei ekitea eta, Adunako herrigunearen ingurabidea eraikitzeko okupatu behar diren eta 1.8 HEA eremuan dauden ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onespena ematea. Honako hauek, hain zuzen:

DESJABETU BEHARREKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA:

- **Finkaren zk.:** 1

- **Jabea:** Leandro Galatas Bengoetxea jauna.

- **Helbidea (k):**

- **Desjabetzapena:** 708 m².

- **Aldi baterako okupazioa:** 289 m².

- **Erregistroko deskripzioa:** "Etxeberri izeneko baserria, Adunako udal barrutiko Goiburu auzoan dagoena; aipatutako auzoan hamalau zenbakia dagokion etxeak hiru area eta berrogei zentiareako lursail-orubea hartzen du, mendebaldeko ertzean itsatsita duen teilapearekin batera eta eraikinak behe-solairua eta goi-solairu bat ditu. Etxeak eta teilapeak, lau aldeetatik, baserriaren jabetzako lurrekin egiten dute muga.

1.- Etxearen bueltako lursailak, mugarriz inguratuta, izen hauez ezagutzen direnak: Lisa-erreka-aldea, Bentaberri-aldea, Altamira, Kamio-aldea, Bikario-etxe-aldea eta Elizegi-aldea. Honako mugak dituzte: Ekialdean, Kamio, Arizaga eta Txantxarrenean baserrietako sailak; Hegoaldean, Lisa-erreka izeneko erreka eta Txantxarrenean baserriko sailak; Mendebaldean, Garagarza baserriko sailak, Txantxarreneakoak, Benta-berri izeneko baratzea, Elizegi etxeako baratzea eta bikario etxeako baratzea; Iparraldean, Bentaberri baserriko sailak, Gabriel Sorondo jaunaren jabetzako eremuak, Aszensio Cortajarena jaunaren eremua, Txantxarrenean baserriko saila, bikario etxeako baratzea, Elizegi etxeako jabetzako eremua eta Gainza Goikoa etxeako baratzea. Honako azalera hartzen dute: bi area eta hogeita bost zentiareako ataurrea; hamabost area eta berrogeita hamabost zentiareako baratzea, erabat itxia; laurogeita hamabi area eta hamaika zentiareako erein-lurra; berrogeita hamazazpi area eta hogeita bat zentiareako sagardia; hamasei area eta berrogeita bat zentiareako saila, ezpondaz eta belardiez osatua; eta, hogeita hiru area eta berrogeita zortzi zentiareako sastrakadia, berezko hainbat gaztainondo eta haritz dituena".

- **Desjabetu beharreko lursailaren deskripzioa:** Arestian deskribatu den jabetza horretatik desjabetu beharreko saila, Elizegialdea izeneko sailaren zati bat da. Honako mugak ditu: Iparraldean, Elizegi baserriko baratzea, gaur Udalaren jabetzako; Hegoaldean, jabetzaren gainerakoa; Ekialdean,

bikario-etxearen gainerakoa; eta Mendebaldean, Txantxarreena baserriko lursailak, gaur egun Udalarenak direnak.

- **Izaera:** landalurra.

- **Erregistroko inskripzioa:** Adunako 1 Liburua, 62. Folioa, 14 zenbakiko finka, 14. inskripzioa.

Bigarren: Aipatutako zerrenda hori jende aurrean ikusgai jartzea, honako iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hamabost laneguneko epean, titularrek eta gainontzeko interesdunek espedienteaz aztertu eta bidezko alegazioak jartzeko aukera izan dezaten, zerrenda horretan izan daitezkeen okerrak zuzentzeko.

SEIGARREN PUNTUA: TOLOSALDEKO HONDAKIN UREN ARAZTEGIA ADUNAN KOKATZEKO ONARPENEA.

Joan den 2004ko abenduaren 17an, Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Batzar Nagusiak Erakunde horren Saneamendu Planaren Bosgarren Berrikuspenari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Berrikuspen honen oinarria, funtsean, Tolosaldeko Hondakin Uren Araztegiaren kokapen berria Adunako udalerrian kokatzea zen, onarpenaren ondorioak Adunako Udalak kokapena onetsi arte atzeratuz.

Adunako Udaleko Udaltzako, aho-batez Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Saneamendu Planaren Bosgarren Berrikuspenaren azaltzen den Tolosaldeko Hondakin Uren Araztegiaren kokapena Adunan izatea onartzen du.

ZAZPIGARREN PUNTUA: ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.

Hurrengo dirulaguntzak ematea onartzen da:

1.- 2007ko NAFARROA OINEZ jaia Vianan ospatuko dela eta, A.P.A. ERENTZUN IKASTOLARI 165 eurotako dirulaguntza ematea adosten da.

2.- KORRIKA 15a gauzatzeko, AEK-ri 500eurotako dirulaguntza ematea kilometro bat erosteagatik adosten da.

3.- Adunako Elizako teilatua konpontzeko dirulaguntza eskatu du Adunako apaizak. Adunako Udaltzako, aho batez, 3.000 eurotako dirulaguntza ematea onartzen du.

ZORTZIGARREN PUNTUA: ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.

1.-. Tolosaldeko Mankomunitateko 2007 ekitaldiko kuotaren %50aren ordainketa onartzen da, kantitate hau 5.999,89 eurotako izanik.

2.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2007ko 1. hiruhilabeteari dagokion kuota ordaintzea onartzen da, kantitate hau 9.839,42 eurotako izanda.

3.- Manuel Larramendi Kultur Bazkunari 2007 urteko kuotaren %60 ordaintzea onartzen da, kantitatea 2.406 eurotako izanda.

HAMARGARREN PUNTUA:

Gai Zerrendatik kanpo, aho-batez, honako gaiak barneratzea eta bozkatzea onartzen da:

1.- EUDEL eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Telelaguntza Zerbitzuaren baldintzak zehazteko Lankidetzaren Hitzarmenaren esparruan, Udal honek, aho-batez, udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean Telelaguntza Zerbitzuaren kudeaketa-lanen esleipena formalizatzeko hitzarmen partikularrak sinatzeko baimena ematea Adunako Alkatea den Arantza Aburuza Alkortari.

Bestalde, Telelaguntza Zerbitzua arautzen duen udal- araudia onartzen da; araudi honen argitarapena Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak egin dezan baimenmenduaz.

2.- Adunako Bake epaile berria izendatzeko prozedura hastea onartzen da. Horretarako, jendaurrean iragarkia jartzea onartzen da, interesa duen orok eskaera Udaletxean egiteko aukera izan dezan.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bi ordu eta berrogeita bost minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.